


# ELGOIBAR B.H. INSTITUTUA 2008/09 IKASTURTEA



**Elgoibar B.H. Institutua**  
Arregitorre 2  
Tel.: 943 74 80 19  
E-posta: [bulegoa@elgoibarbhi.net](mailto:bulegoa@elgoibarbhi.net)  
[www.elgoibarbhi.net](http://www.elgoibarbhi.net)

## BATXILERREKO ESKAINTZA

### ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA

Osasun zientziak

Zientzia eta teknika

Teknologia (zikloetarako)

### HUMANITATEAK ETA GIZARTE ZIENTZIAK

Gizarte zientziak

Humanitateak

**Aurrematrikulako datak:**  
**Maiatzaren 5etik 9ra**

**GURASOENTZAT BILERA IREKIA: Apirilaren 29an, 19:00etan**  
**IKASLEENTZAT ORIENTAZIO BILERA: Maiatzaren 7an, 16:00etan**



**EUSKO JAURJARITZA**  
HEZKUNTZA, LANBETTSUNE  
ETA KENENEA SAILA



**GOBIERNO VASCO**  
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN



- Erreportaia: Udal aurrekontua ez da onartu
- Entzutekuak: Kili-kolo antzerki taldea

soraluzeko  
hamabostekaria **176.** alea  
2008ko apirilaren 25ean

# pil-pilean



**Pedalei eraginez bidean gora**

MIKEL HERNANDEZ



# FILM LABURREN V. ZIRKUITUA

ZINEA EUSKARAZ

MAIATZAREN 9an  
Soraluzeko Gaztetxean  
Gaueko 22:30ean

ANTOLATZAILEA



**Topagunea**

EUSKARA ELKARTEEN FEDERAZIOA



**PIL-PILEAN**

EUSKARA ELKARTEA



**LA SALLE - AZITAIN** IKASTETXEAK

2008-2009 IKASTURTERAKO HONAKOA ESKAINTZEN DU:

**BATXILERGOAK [A eta D]**

**GIZARTE ZIENTZIAK  
OSASUN ZIENTZIAK  
ZIENTIFIKO-TEKNIKOA**

**Etengabeko Jarduna**

***Badugu ikasteko leku bat zuretzat!***

[www.lasalle.es/eibarlasalle](http://www.lasalle.es/eibarlasalle)

DEITU 943 121 698 - 943 202 505 Telefonoetara - MAIATZAREN 5etik 9ra



**Clínica Oftalmológica**

**RECALDE**

**Oftalmologi Klinika**

**Plaza Barria, 2 - 2º - EIBAR**

**Tfnoa.: 943 201 844**

**[www.clinicarecalde.com](http://www.clinicarecalde.com)**



ELENE ALBERDI



GURUTZE ARIZNABARRETA

## HITZAK, SILABAK, BERBAK... AHOTSAK!!!

**K**aixooo Gururu, enkanto! Zelan zabil-tza ba Elgoibar aldian? Zelan tratatzen zaituzte elgoibartarrek? Udaletxeko plazan egongo zara, hara eta hona, korrika dabizen haurren artian.... Etooor, Harrii, etorri hona! oihuka. Inguruko barbaroan gaine-tik, ahots edo soinu ezagunik topa-tuko dozu. Mmnn... hori plaentxiarra da! Joño, plaentxiarrez josita dago Elgoibar! Kolonia txiki bat sortzeko adina soralezetar dao eta! Ez da hala? Je, je...

Gogoratzen dozu zenbatetan esan dotsudan Plaentxian egiten dan hitanoa erakutsi behar zenidala? Etxian, aitak jakin badaki, baina neri beti zukaz egin dosta eta ez dot ikasi. Zein edarra dan etxeokoekin hitz egiten entzuten zaitudanian. Euskaldun zaharren arteko berba-laguna be ez legoke txarto, tokian tokiko hizkeraren berezitasun horiei sendo eusteko.

Horrenharira, BadiharduguDeba Ibarreko Euskara Elkartearen lana nabarmendu nahiko neuke. Duela gutxi aurkeztu dabe [www.ahotsak.com](http://www.ahotsak.com) izeneko webgunea, Ahotsak ahozko ondarea jasotzeko proiektuaren baitan. Hainbat elkarte eta Udalekin batera, adineko pertsonen elkarriketak egin dotsez eta horiek grabatu, katalogatu, etiketatu, transkribatu eta webgune horretan eskegi dituzte. Hala, Euskal Herri osoko lekukotasunak jaso nahi dituzte. Webgunian sartuta, hantxe agertzen da gure herrixa, eta bertan, makina bat plaentxiar! Merezi dau entzutia! Xapo! Hitz barik gelditu naiz Gururu... ☺

“

**Aitak jakin arren,  
ez dot hika ikasi**

Elene Alberdi

**Ahotsak.com,  
benetan lan  
txalogarrixa!**

Gurutze Ariznabarreta

”

**K**aixooo LN polittori! baai, baaiiii! Elgoibar konkistatu dogu! Kitto! Karakate guria da! Hemen, plaza zaharrian baino plazentziar gehixago dago. Pote bat hartzera urten eta zeintzuk aldamenian? Jakes, Unamuno, Zerrajon, Elizburu, Galarraga... Plaentxia zabalkuntza fasian dago, ja, ja..

Euskaldun zaharron topaketa bat egittia ondo legoke. Tertulixan jarduteko Plaentxiako berba eta esamoldiez, euskalkixan idazteko araez, euskal jergaz... Portzier-to hikarena eginda dago! Dakitten apurra erakutsiko dotsut, gero ikusiko dogu bixon arteko jarixuan ze nagusitzen dan. Ze, hitanuana mundu bat da, barrenak eskatzen dau zeini eta noiz egin. Batzuekin, blaust, urtetzen dau, eta beste batzuekin ezin... zelako kuriosua eh!

Eta euskerian sekretuekin gozatzan jarraituz, neuk be, zorionak eta zorionak Badihardugu elkartari eta ahotsak.com proiektuari.

Benetan lan txalogarrixa! Egixa esateko emozionatu egin naiz amama Natin pasadizuak sarian entzun dittudanian. Xapó teknologia berrien aurrerapenari be! A zelako altxorra dagan jasota, bua! Lagunok, gomendatzen dotsuet webgune horretan sartu-urtentxo bat egittia. Zela aldatu diran gauzak hain denbora gutxixan, kooon! Zuk ze nahixagoko zinu-ke Maltzagako erromerixara jua eta Aldason soinuaren erritmuaren trikitrixan egittia ala txikilikutria dantzatzia? Esango dostazu hurrengo elkartzen garanian. Elenetxu, maitte, zoriontsu izan! ☺

Goguan hartzeko

**Deabrua adintsu, horregatik jakintsu.**

Atsotitza



## GUTUNAK

### MUko Plan Berria

Pasa den ostegunean, Apirilak 17, Mondragon Unibertsitateko (MU) agintariek plazaratu duten Plan Berriaren inguruan prentsaurrekoa eman zuten bertako ikasleek. Deba bailarako ikasleok ere, bat egiten dugu bertan esandakoarekin.

MUko arduradunek, Bologna Prozesuak dakarren unibertsitate eredu merkantilistari betebete erantzun dion Plan bat diseinatu dute. Hezkuntza, merkatuaren mesedetara jarriko duen eredu hau, goxoki goxo bat balitz moduan eskaintzen digute ikasleoi, Europan zehar mugitzeko inoiz baino erraztasun gehiago izango dugula esanaz, eta eleaniztasun faltsuak eskainiko dizkigun alde positiboak behin eta berriz errepikatuz.

Europar esparru unibertsitate bakar bat sortu nahi dute honela. Inongo identitate propiorik gabeko Europar herritarrak sortuko dituen hezkuntza sistema bat nahi dute. Merkatuak, eta zehazki enpresek behar dituzten langile kualifikatuak sortuko ditu unibertsitateak. Pertsona aske eta kritikoak sortzea helburu izan beharko lukeen unibertsitateak, enpresen behar formatiboetara moldatuko diren ikasle sumiso eta akritikoak sortu

### Iratxo Goxotegiak apurketengatik

Iratxo Goxotegiak ordutegi nahiko zabala zuelakoan, maiatzean larunbat arratsaldetan ixtea erabaki genuen, guk geuk ere atsedean hartu ahal izateko. Hala ere, gure bezeroak zerbitzurik gabe ez uzteko bi makina ekarri genituen; horrela, dena itxita zegoenean jendeak erosteko aukera izan zezan. Orokorrean jendearen harrera oso ona izan bada ere, konturatu gara bizi garen herri honetan ez ditugula ez gure ez besteen gauzak zaintzen. Zergatik? Azken hamar hilabetetan makinak ba-

nahi ditu. Egunean zortzi ordu inguru ikasketei eskainiko dien ikaslea nahi du MUko plan berriak. Bere inguruan gertatzen denaz arduratuko ez den ikaslea, bere ikasketak ordaintzeko lan egin ezin duen ikaslea, hain zuzen ere, ikasteko, eta horretarako bakarrik biziko dena; gero, ikasketak bukatzean lanerako, eta horretarako bakarrik biziko den langilea sortu dadin.

Beraz, Deba bailarako heziguneetatik argi eta ozen zera esan nahi dugu:

Ikasle Abertzaleok eta Euskal Herriak herri honen behar formatiboetara egongo den unibertsitate batean ikasi nahi eta behar dugu. Euskara, euskal gizartea, kultura eta abarren mesedetara egongo den unibertsitatea da Hezkuntza Sistema Nazionala lortze bidean une honetan hezkuntza esparruan guztiok batera eman behar dugun urratsa eta ez, MUk nahi duen bezala, merkatuak murriztutako unibertsitatea eraikitzea.

**GUREA DA HITZA! BOLOGNA GELDITU BERTARAKO DUZUE!!!**

### DEBA BAILARAKO IKASLE ABERTZALEAK

besten dituzten kristalen lau apurketa izan ditugu eta, hauek bikoitzak eta gogorrak izan arren.

Horren aurrean zer egin dezakegu? Guk hasieratik kamararik ez jartzea erabaki genuen herritarrengan konfidantza daukagulako. Baina gertatutakoak ikusita, kamarak jartzea al da konponbidea gauzak zaintzen ikasteko?

### IRATXO GOXOTEGIA

 **PIL-PILEAN**

**Argitaratzailea:** Pil-pilean Kultura Elkartea. Frontoi kalea 5. behe, PK 27 - 20590 Sorluze, Gipuzkoa **Telefonoa:** 943 75 13 04  
**e-maila:** pilpilean@euskalnet.net **Erredakzio burua:** Arianne Unamuno **Erredakzio batzordea:** Enara Agirre, Jon Basauri, Aitor Madrid, Eduardo Pombar, Arianne Unamuno eta Maite Kintanilla **Publizitatea:** Ane Larreategi **Logotipoa:** Pablo Galarraga eta Silvio Vaz **Diseinu eta maketazioa:** Silvio Vaz **Komikixia:** Silvio Vaz  
**Inprimategia:** Gertu Koop.  
**Banaketa:** Pil-pilean Ekoizpena, 1.920 ale  
**I.Z.K.a:** G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Pil-pilean Kultura Elkartek ez du bere gain hartzen aldizkariko esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



SORLUZEKO  
UDALA



GIPUZKOAKO FORU  
ALDUNDIA





## bittartetik



Jon Errazu

## Denbora eta ohea

Gizakixan asmakizunik txarrena denbora da eta onena ohea.

Gora, behera, hara, hona, pasatzen dogu gure bizitzako parte haundi bat, beti erlojuari begira, beti denboraren menpe. 8:00etan jaiki, 9:00etan lanian, 19:00etan lanetik irten, 20:30etan "cervecita" eta 00:00an ohera.

Ohea, erlojuaren menpekotasun horretatik libratzen gaituen asmakizuna da. Bat ohean daganian, denboraren kontzientzia zeharo galtzen da. Minutuak ordu eta orduak minutu bihurtu leikez, erlojuko alarmiak berriz denboraren menpe sartzen gaittuan momentura arte. Holan doia pasatzen gure bizitza, egun bat bai eta beste bat be bai, egun gehixenak antzerakuak izaten dira eta. Egunak pasa ahala, norberak bere bizitzako momenturen batian (batzuk lehenago beste batzuk beranduago) gelditu, atzera begirada bat bota eta konturatzen da erlojuak milaka buelta emon dittuala eta bera ez dala konturatu. Momentu hortan, burura galdera bat etortzen da: Zer egin dot nere bizitzan?

Abraham Lincoln-ek esan zeban moduan: "Azkenian inportatzen dana ez dira bizitako urtiak, urtien bizitza baizik".

## Zein da zuen azken lana?

PatetiKKbareta da. Zoramena lantzen daben obra bat da. Kabareta da baina bizitza erreallarekin zuzenian lotuta dago. Errealitatea eta kabareta nahasten dira. Komikoki landuta eginda dago. Gure buruaz barre egin, normalizatzeko bidian. Uste dogu Kili-kolo ez dala gai komikua ez dan ezer egitteko...

## Zer da kabareta?

Oinarrixan kabareta dibertigarria eta probokatzailia da, gizartiarik kritika egiten dotsana. Gaur egun, askotan kabaretak zentzua galdu dau, pentsatuz kabareta jai bat dala, edo estrip-tis bat. Eta sorreran ez zan hori, gizarte kritika zeukan.

## Kabareta izanda, musikala da baita?

Musika asko dago, bai, eta dantza ere bai.

## Zoramenan gaixarekin, ze mezu emon nahi dozue?

Zoramena sozializatua. Tabu bat dala ikusten dogu, baina gertatu egiten dala, gero eta gehixago. Gizartiarik zorotasun mota bat sortzen dau, eta ez dakigu horri irtenbide bat emoten; berak zoratu eta berak bakar-tzen gaittu. Eta normalian ez dakigu zela jokatu eta urrundu egiten gara. Gizarte presiñua-gaittik jende hori zein bakarrik sentitzen dan islatzen da antzezlanian.

## ((ENTZUTEKUAK))

## Kili-kolo antzerki taldea



## Aurretik ze obra egin izan dozue?

"Mutazita" izan zan lehenengo obra landuena.

Gero umiendako, artisauteza azokarako, AHTan aurkako ekintzetarako...egin izan doguz lanak, baina horrek puntualak izan ziran. Danera lau bat urte daroiguz.

Taldeakideak Eibarren duten lokalean.

Antzerkixa ez dago sozializatuta musikia beste

## Zein lekutan antzertu izan dozue?

Gaztetxietan gehixen bat, aukera asko edukitzen doguz eta. Zirkuitu zabala dago. Antzerki talde amateurra gutxi dago, musika taldiekin pasatzen ez dan moduan. Antzerkixa ez dago sozializatuta musikia beste.

## Hurrengo emanaldixak nun daukazue?

Soraluzen 25ian, Durangon maiatzan 9xan, Hernanin San Juanetan... eta besterik ez dogu erabaki, baina aukerak badaukaguz. ☺

**SAN ANDRES**  
ITURGINTZA

Iturgintza, gasa, eta berogailuak sukaldeak eta bainuak

Errebal kalea 2 behea T. 943 75 16 46

**PLACENCIA**  
KONTSUMO KOOPERATIVA

Esku eskura! Telf.: 943 75 13 45

# Arriskuen eta prebentzioen berri, minbiziaren inguruko hitzaldian



Herriko emakumeek adituek emandako informazioa jasozuten.

**H**irurogeita hamar emakumek bularreko minbiziari buruzko argibideen berri izan zuten Udaleko Gizarte Ongizate Sailak eta Katxalin Elkarteak antolatutako hitzaldian.

Arrisku faktoreen artean familiako aurrekariak, estrogenoak (hormonak), gizentasuna, alkohola eta X izpiak aipatu zi-

tuen Maria Jesus Mitxelenak, Donostiako Institutu Onkologikoko doktoreak.

Prebentzioen alorrean, auto-explorazioa hilean behin hilekoaren ondoren egin behar dela azaldu zuen, "gure bularrak ezagutzeko eta ezer balego, garraiz harrapatzeko". Medikuairengana joan eta urtero begiratzeko gomendioa ere eman zuen. 40 urtetik aurrera maiztasun desberdinez mamografiak egin behar direla azpimarratu zuen.

Elkarteko ordezkariak laguntza osoa emateko prestutasuna azaldu zien bertaratutakoei. ☺

Plazentziatarren testigantzak  
www.ahotsak.com  
webgunean



ahotsak.com

Euskal Herriko ahozko ondarea eta herri hizkerak katalogatu eta hedatzeko asmoarekin, Badihardugu Euskara Elkarteak bost urtean zehar herrietako adineko jendea elkarriketatu eta euren euskara eta bi- zipenak jasota, AHOTSAK webgunean ipini ditu. Soraluzeko 37 hizlari azaltzen dira, gai desberdinetako 253 pasarte kontatzen.

Errabal kalea zabalik ibilgailuentzat



Dagoeneko irekita dago Errabal kalea ibilgailuentzat. Bergarako norantzan doazen autobusen geltokia Gilara bueltatu da. Errabal kaleko 9. zenbakiko etxearen eraikuntza lanengatik, apirilaren 26tik aurrera kalea itxi egingo da eta autobus geltokia Estaziora pasatu egun eta ordu hauetan: zapatuetan 8:30etik 20:30era eta martitzenean 14:00etik 16:30era.

## Laugarren aldiz

Hilabete gutxiaren buruan lau aldiz apurtu dute Iratxo Goxodendako makineta beira. Oraindik ez dute jakin ahal izan nor izan den



**TXOKO KAFETEGIA**



*Kafe ederra hartzeko txokorik onena!*

Kalebarren 22 behea zello: 043701750



**MENDIZABAL**  
okindegia

Kalebarren 10  
T. 943 75 20 91

Baltegieta 6  
T. 943 75 13 99

**SORALUZE**



### Irukurtzeta eguna maiatzaren 4ean



Maiatzeko lehenengo domekan Irukurtzeta eguna ospatuko da, urteroko ohiturari eutsita. Goizeko 11.00etan Irukurtzetan bertan salda eta txorizo banaketa egingo da, trikitilariekin. Eguraldi txarra egiten badu, atsedean txaboletan ospatuko da jaia.

### Gaitzespen eta dimisio mozioak

Maiatzaren 7ko Udalbatzan 6 mozio bozkaturiko dira. Horietatik 4 zentsura mozien eta dimisioen ingurukoak izango dira, PPK, PSE-EE eta EAJK, EAK eta ANVk aurkeztutakoak. Gai-nontzeko biak Askatasunak eta Gehitu elkarteak aurkeztu dituzte.

### 38ko eta 46ko kintoak

1938an jaiotakoek maiatzaren 10ean bazkaria egingo dute Txurruka jatetxean. Bertaratu nahi dutenek 30 euro sartu beharko dituzte Kutxan apirilaren azkena baino lehen. 1946an jaiotakoek ere bazkaria egingo dute maiatzaren 17an. Herriko tabernetan dauden zerrendetan eman behar da izena.

### Osasun laboralagatik kontzentrazioa

LAB sindikatuak deituta, apirilaren 28an kontzentrazioa egingo da eguadi 12etatik 13ak bitartean, Laneko Segurtasun eta Osasunaren Nazioarteko Egunean.

# ZERIKASI, doako zerbitzu berria garapen pertsonala indartzeko

**ZERIKASI** Deba, Eibar, Elgoibar, Mendaro, Mutriku eta Sorluzeko bizilagunei era guztietako prestakuntzari buruzko informazioa, orientazioa eta aholkularitza hurbiltzeko zerbitzua izango da, erabat doakoa, aurrez-aurre eta internet bidez eskainiko dena [www.zerikasi.com](http://www.zerikasi.com) webaren bidez.

### Jostungintza, Tai-Chi...

Zerprestakuntzainformazioeskaintzen du ZERIKASIK? Adibidez, jostungintzatik hasi eta tai-chi ikastarotik pasata, unibertsitate mailako edozein ekintza izan daiteke. ZERIKASIK Debabarreneko biztanle guztiei adierazi nahi die edozein motatako ikas-

taroa ematen badute, ZERIKASIRA deitzeko (943748271 telefonoa), ematen duten formazio edo ikastaroen berri jakinarazteko Debabarreneko biztanle guztiei. ZERIKASIK ere formazioa ematen duten entitateei adierazi nahi die egiten duten ekintzak telefonoz adierazi edo zuzenean sar dezaketela [www.zerikasi.com](http://www.zerikasi.com) webean, bertan erregistratuta. Guzti hau doakoa izango da.

ZERIKASI Elgoibarko IMHko eraikinean dago kokatuta (Azkueta Auzoa 1, Mintxetako futbol-zelai ondoan) eta aztertzen ari da nola hurbildu Debabarreneko herri guztietara. ☺



Sorluzeko eragileekin batzartuko da, herritarrengana gerturatzeko bideak zabaltzeko

**GILA TABERNA**  
GOIZEKO 6:30 ETATIK AURRERA ZABALIK  
**GOSARIAK  
ETA PINTXO  
GOXO GOXUAK**  
ERRABAL KALEA 15 T. 943 75 18 34

**GURE ZERBITZUAK**

- Ortodontzia ikustezina
- Inplanteak

**ELIZPE**  
Hortz Klinika

✓ DOANEKO BERRIKUSKETAK  
✓ FINANTZAKETA ZURE NEURRIRA  
✓ KONPROMISURIK GABEKO AURREKONTUA

ETA ORAIN... LAGUN ARO, PADI (HAURREN ARRETARAKO HORTZ PROGRAMA)

Elizburu 3, behea • SORLUZE • Tel. 943 75 25 67





### Euskara autoko leihoan

Autoa salgai jarri duen pertsona honek badaki euskarak bere autoa saltzen lagunduko diola. Edozeinek ulertzen du "salgai" hitza eta erosleak badaki saltzaileak baduela sentiberatasuna hizkuntzekiko.



### Euskaldunak oinez

Gero eta euskara gehiago ikusten da Soroluzeko kaleetako iragarki eta errotuluetan. Hala ere, oraindik badira gaztelera hutsez dauden errotulu batzuk. Euskararen aldeko gutun hau bidali nahi izan diogu jabeari.



## Zer egin?

“*Errenta aitorpena euskaraz egiteko aukera ematen dute bankuek*”

### Errenta aitorpena euskaraz egin

Euskara jakitetik gure bizitzako zeregin guztietan erabiltzen hasia da euskaldunon erronka. Errenta aitorpena egiteko epea zabaldu dute apirilean. Soroluzen, Euskadiko eta Gipuzkoako Kutxako sukurtsaletan aukera guztiak daukazu aitorpena euskaraz egiteko. Kutxako datuen arabera, 2007an Kutxan egin ziren aitorten guztien %8a euskaraz egin zen. Guk ere euskaraz!

## ALBISTEAK



### San Andres

Elkarteko barne funtzionamendu ia osoa euskaraz egiten da. Kontsumitutakoaren fitxa, bazkideen batzarrak, estatutuak, agenda, oharra, errotuluak...

### 2008rako konpromisoak

- Hornitzaileei fakturak euskaraz bidaltzeko eskatu
- Elkartearen hizkuntza irizpideak idatziz jaso
- Diru kontuen liburua aldatu eta euskarazkoa jarri





Zulotik  
begira

**“Musika maite baduzu,  
jotzen hasi emaitzarik espero gabe.”**

Apirilaren 17an, Gorka Urbizu eta Gotzon Barandiaran D.B.H.ko 4.mailako ikasleekin egon ziren emanaldi txiki bat ematen. Katamaloren proiektua zertan datzan azaltzen, poesiaren eta musikaren arteko erlazioari buruz bere ikuspuntua emanaz. Emanaldiaren ondoren, argazkiko ikasleek elkarrizketa txiki bat egin zieten:

**Nola sortu zen  
Katamalo?**

Katamalo berez Gotzon Barandiaranen poesia liburu bat da. Gotzonek bere poema batzuk musikatzea nahi zuen eta orduan jaso nuen bere deia Bihotz bakartien klubera gehitzeko. Sei-zazpi abesti egin genituen. Hortik aurrera zuzeneko batzuk eman ditugu.

**Zuentzat musikak eta poesiak  
loturaren bat daukate?**

Bai, lotura natural bat dago. Bakoitzak bere esparrua du, bere mundua, baina egia da badagoela zerbait lotzen dituen: zentzua, erritmoa... Poesiak musikalitatea dauka eta musikak aldi berean poesiarako toki oso aproposa uzten du.

**Zeri ematen diozue garrantzia gehiago, hitzei  
edo musikari?**

Katamalo, zehazki, gauza literarioagoa da musikala baino. Gotzonek esaten duenez, zaila da poesia zabaltzea musikatu barik. Horrela, errazagoa da ulertzea eta barneratzea. Baina nik uste dut parez pare daudela.

**Gorka, badakigu Berri Txarrak dela zure talde  
nagusia baina hortaz aparte beste proiektu  
batzuetan hartu duzu parte (Peiremans, Kata-  
malo...) Zelakoa izan da esperientzia?**

Niretzako gauza oso erakargarria da. Argi daukat Berri Txarrak dela nire bizitzako proiektua, nire bizitzako taldea. Baina egia da ere musika kontsumitzaile amorratua naizela; orduan, Berri

Txarrak txiki gelditzen zait estilistikoki, musika oso ezberdina entzuten dudalako. Horregatik egin genuen Peiremans, poperoagoa, eta Katamalo, akustikoa, ezin dugulako bost diska eta gero horrelako musika egin eta Berri Txarrak deitu.

**Gotzon, bi poesia liburu argitaratu dituzu.  
Gorkaz aparte, erabili ditu beste  
norbaitek zure hitzak?**

Rafa Ruedak atera behar du diska bat orain eta



Katamalo letra bat erabiliko du gutxienez, baina orain arte nik eduki dudana harremana musikariekin, beraiek melodia bat eman eta eskatzen zidaten horri letra bat ipintzea izan da. Gero, Póg Mo Thón taldeak egin zuen Hiztalitako argi bakoitzeko diskari jarri zioten Arrakala liburuko poema baten izenburua.

**Bukatzeke, zer esango zenieke orain  
hasten diren taldeei?**

Sentitzen dutena egiteko, besterik ez. Egia esan, ez dago beste aholkurik. Musika maite baduzu, gitarra edo dena delakoa hartu eta jotzen hastea baina emaitzarik espero gabe. Hasiera batean sormenaren helburua izan behar du norbera gustura gelditzeko, eta jendeari gustatzen bazaio, ba hobeto.



# Udal aurrekontua ez da onartu

Oposizioaren ezezkoak Udal-Gobernu Taldearen aurrekontu proposamena bertan behera utzi du. Legeak dioenaren arabera, 2007ko aurrekontuak luzapena izango du.

## Oposizioak kontrako botoa

Apirilaren 21ean ez-ohiko Udal Batzarra egin zen 2008rako aurrekontua onartu ala ez bozkatzeko. Gobernu taldea osatzen duten EAE-ANV(3) eta EA (2) alderdiek baiezkoa eman zuten eta EAJ-PNV (3), PSE-EE (2) eta PP (1) alderdietako zinegotziek ezezkoa bozkatu zuten. Hamaikatik bost baietz, sei ezetz. Aurrekontuak ez du aurrera egin eta legeak agintzen duenari jarraituz, 2007ko aurrekontuaren luzapena izango da 2008koa.

## Proiektu berriak kolokan

2007ko diru kopuruari gehikuntzak zein beherapenak aplikatu eta gastuetan erabat bukatu diren programa zehatzak kanpo utzita, 4.957.993,90 eurokoa izango da Udalaren aurrekontua urte honetarako. Bozkatutako proposamena 5.019.000 eurokoa zen, 2007koa baino 800.000 euro eskas gehiagokoa.

Kopuru orokorretan alde nabarmenik egon ez arren, gastuak banatzerako orduan desberdintasuna egongo da, gastuek 2007koen modukoak izan beharko dute eta.

Udal Gobernuak proposatutakoaren baitan proiektu berriak zeuden. Hautzat diru partida lortu ahal izateko moldaketak egin beharko zaizkio aurrekontuari. Moldaketok Udalbatzaren onespina beharko dute aurrera egiteko.

## Bi batzorde dirurik gabe

Legealdi berrian batzorde bi sortu ziren; emakumearena bata, gaztediarena bestea. Biei diru kopuru bana egokitu zitzaion Udal Gobernu Taldeak egindako aurrekontu proposamenean

1.284.000 euro inbertsioetara bideratu nahi zituena Udal Gobernuak, 400.000 euroko kreditu eskaera aurreikusita.

## EAJ, akordiorako asmo eza salatzen

Iker Aldazabal, EAJko bozeramaileak, salatu egin nahi izan zuen Udal Gobernuak EAJrekin ez zuela agertu ez negoziatzeko ez akordiora heltzeko asmorik. “Joku demokratikoan harremanak edukitzea normalena” dela eta aurrekontuak onartze-

ko erantzunkizuna Udal Gobernuarena dela gaineratu zuen Ikerrek. “Gobernatzeko kulturarik ez dago eta horren emaitza da egoera hau”, adierazi zuen Aldazabalek.

## PSE-EE eta PP, partida bategatik ezetza

PSE-EEek aurkeztu zituen emendakinak edo zuzenketak onartu egin zitzaizkiola adierazi zuen Soledad del Bosquek. Bere alderdiak puntu bat ezin zuela onartu jakinarazi zuen Soledak: presoen senideei ematen zaien laguntza. PPk argudio bera erabili zuen ezezko botoaren azalpena emateko.

## Udal-Gobernuaren erantzuna

Jose Luis Arizaga EAE-ANVko alkateak boto azalpenei erantzuna eman zien. “Historian lehenengo aldia da aurrekontuak onartu ez eta aurrekoak luzatzen direla, EAJ-PNV oposizioan dagoen lehenengo urtean”, esan zuen, Ezker Abertzaleak aurrekontuak inoiz ez dituela baldintzatu gaineratuz. Eskerrak eman zizkien teknikoei eta langileei aurrekontuen prestaketan laguntzearen; baita PSE-EEri ere emendakinak aurkeztearen, nahiz eta “beste kontu batzuegatik hau gertatu izanaz penatuta” azaldu. Autokritikarako tartea hartu zuen, esperientzia faltagatik herri-tarrekin aurrekontua prestatzerako orduan hankamotz geratu direla aitortuz. EAJri atzera begira ibiltzea leporatu zion eta gaineratu zuen ez zuela emendakinik aurkeztu PSE-EEk egindako moduan, bere alderdiaren programa baizik.

Roke Akizuk (EA) gaineratu zuen EAJk “pelikula egin” duela baina “argumenturik gabe, lau urtean ere egin ezin daitekeena aurkeztuta”. Poza azaldu zuen PSE-EEk emendakinak aurkeztu zituelako. ☺

2007ko aurrekontuen luzapenak Udal Gobernuak mugatu egingo du

Udal aurrekontua 4.957.993,90 eurokoa izango da.



**IRITZIAK:**



**EAE-ANV:**

“Ezker Abertzaleak ez ditu inoiz aurrekontuak baldintzatu.”.

**EA:**

“Oposizioan gaudela dirudi. Egoera surrealista da”.

**EAJ:**

“Akordiorako eta negoziatorako borondate eza salatu nahi dugu”.

**PSE-EE:**

“Ezin dugu presoen senideei ematen zaien laguntza onartu”.


**PP:**

“PSE-EEK dioenarekin ados nago”.



**Aurreikusitako gastuak Batzordeka**

	2008ko aurrekontua (2007ko luzapena)	2008rako proposamen ezeztatua	Aldea eurotan
Ongizatea	201.983€	277.150€	- 75.167€
Kultura	191.110€	238.843€	- 47.733€
L.A. eta Nekazaritza	140.190€	188.395€	- 48.205€
Hezkuntza	109.175€	110.277€	- 1.102€
Kirola (+Gaztedia)	54.570€	207.080€	-152.510€
Euskara	51.350€	60.196€	- 8.846€
Emakumea	-	20.000€	-20.000€
Ingurugiroa	16.872€	12.504€	+ 4.368€
Gaztedia	-	7.400€	- 7.400€
Beste ente publikoei	75.000€	58.859€	+16.141€



## Ugara xo Alpis tea Hazia landatu, zaindu eta lorea gure gelan!

Kaixo lagunok ! 5 urteko gelakoak gara eta hemen azalduko dizuegu landareen prozesua:

Alpis tea

① Lanontzia  
prestatu gure  
azalera eta  
laurontzetan  
idatzi



② Harila, erain



3-Lurra z etan eta ura nota


④ Eruntzem



⑤ Adarburua  
indibid. laguntza eta ura  
egindako lanarekin ia. lanean  
bera eta politak  
egiten zaizkizun



txiki



## Gustoko dozu irakurtzia?

### Pako Aristi idazliak zer kontatu zotsuen?

Oihana Hernandez, 8 urte



Bai, ipuinak irakurtzen ditud. Azkena Pako Aristiren "16 paisa eta paralitiko bat" izan da. Barre egittekua da. Pakok irakurtzia eta ipuinak idaztia gustatzen jakola esan zoskun.

Daniel Gonzalez, 8 urte



Bai, pixkat. Euskarazko liburuak, Mortadelo eta Filemonen komikixak... irakurtzen ditud. Bere liburu eta etara eta sei hilabetera irakurri ostian, gustatzen ez bajako, bota egiten dabela esan zoskun.

Bai, erdizka. Ipuinak irakurtzia gustatzen jata neri. Azkena Pako Aristiren ipuina irakurri dot eta politta da. Berak nobixia daukala eta ipuin asko idatzi dittuala esan zoskun.



Bai, asko. Barregarriak diran liburuak gustatzen jataz gehixen. Batzuetan liburutegira juaten naiz. Pakok kontatu zoskun gela bateko leiho baten onduan lan egiten dabela.



## IXISTEA

### \* TELEFONOZ

- Aizu, eroetxea al da?
- Ez, jauna, konfunditu egingo zinen. Guk ez daukagu telefonorik.

### \* SEMEAK AITARI

- Aita, nagusitutakoan amonarekin ezkonduko naiz.
- Baina, semetxo, nola ezkonduko zara ba nire amarekin?
- Eta zu ezkondu zinen ba nirearekin!

### \* ETXEKOANDREARI

### GALDEZKA

- Etxekoandrea etxean al dago?
- Ez, ez dago etxean, kanpoan da.
- Eta noiz etorriko da?
- Itxoin, oraintxe galdetuko diot.



# ZER TRISTEN DOTSAZU?

## Ze etorkizun dauka liburu formatuak?

Liburuaren Nazioarteko Eguna izan zen apirilaren 23a. Teknologia berrien eskaintza anitzek liburuaren lekua hartu dute zenbait arlotan.

**UNAI GISASOLA**  
Ikaslia



**M**artxa honetan desagertzeko bidian doiala uste dot. Nik irakurtzeko liburuak gehixago erabiltzen ditudut interneta baino.

**BEGOÑA TXURRUKA**  
Dendarixa



**N**eri liburuak irakurtzia gehixago gustatzen jata, interneta baino. Entziklopediak badaukaguz eta tarteka begiratzen doguz. Askok gustatzen jata irakurtzia, denpora gutxi dakaten arren.

**CARLOS TORNOS**  
Mekanikua



**B**eti jarraituko dau, beti. Ez da estantetrixak politt egitteko, ezta etxianekitziarreneukitzeke, baina bai aldiak erabiltzeko, lasai jarritta egunero irakurtzeko. Askok irakurtzen dot nik.


**MARIBEL ADANEZ**  
Administrarixa



**O**na neretzako, nere edadiakin. Interneta gero eta indar gehixago hartzen dabil baina ni ez naiz modernismo horren aldekoa. Ez dot askok irakurtzen baina irakurtzen dotena liburutik.

Nik harrapatuko dot zator haundi hau...

KOMIKIXA



*Disseinua eta Sormena*

Poligono Amillaga, n° 5

Tlf.: 943 76 99 85

20570 BERGARA (Gipuzkoa)

Fax.: 943 76 05 17

Altzairuen fabrikazioa:

- Bainugelak
- Sukaldeak
- Horma-armairuak
- Barruko altzairuak

Javier Alonso Zelaleta  
MEDIKU ESTOMATOLOGOA  
K.Z. 20.000.434

Jon Azkorbebeitia Txurruka  
K.Z. 20.000.752

**HORTZ KLINIKA**

Errabal 1 - Barrenekoa 2 T. 943 75 16 13



### San Andresetarako, gazteei deialdia

San Andres auzoko jaietako zapa-tuan Gazteen Eguna ospatu nahi du San Andres elkarteak. Horretarako dei egin nahi die auzo-arekin edozelako lotura duten gazteei maiatzaren 9an gaueko 21:00etan elkartearen egingo den kafe tertuliatxora etorri eta egin daitekeenaren inguruan berba egiteko.

### PatetiKkbareta eta Itoitzera irteera Gaztetxeak antolatuta

Gaur gauean, barixakua, Kilkolo antzerki taldeak bere azken lana aurkeztuko du Gaztetxean, 22:30ean. Zoramenari buruzko antzezlan musikatua eta kritikoa izango da.

Domekan, Gaztetxeak antolatutako irteeran Itoitzera joango dira, inguruak ezagutu eta urtegiari buruzko kontuak entzuterara.

### Larrain dantza

Urrats Dantza Taldeak eta Euskal Jai Batzordeak antolatutako larrain dantza ikastaroko hurrengo saioa maiatzaren 9an egingo da, iluntzeko 7etan Goiko Eskolan.

## Jokin Oregiren “Ni naiz Hector, ni bakarrik!” argitara

Serantes saria jaso zuen 2007an Jokin Oregi soraluzetarraren “Ni naiz Hector, ni bakarrik!” antzezlanak eta aurten argitara eman du Artezblai argitaletxeak. “Komedia erromantiko hiperbolikoa” azpigitulupean aurkeztu du egileak. Harkaitz Canok idatzi dion hitzaurrean dioenez, Woody Allenen eragina atzeman du pertsonaietan. Norberak barrenean gordetzen dituen aldarte ezberdinetan jarri du bereziki arreta, pertsonaren baitako armairuetan eta lagunaren armairuetan bizi diren beste horietan. Egoera kon-

traesankor eta umoretsuak ditu obrak. Hausnarketa sakona duen gaia izan arren, antzezlanarekin irakurle-ikusleek barre egitea du helburu Jokinek.

### Oholtza gainera, udazkenean

Jokin Oregik Argia astekarian adierazi duenez, “zorionez, oholtzagainean ikusteko aukera izango dugu, hori baita edozein antzerki testuren xedea. Azaroan Santurtziko Serantes Antzerki Jaialdian estreinatuko da... Hector denak ados jartzen badira, jakina!” ☺



Jokin Oregik entzutetsuak izan diren beste obra batzuk idatzi ditu (“Ezin dut egia esan” esaterako) eta aktore lanetan aritzen da.



**PASCUAL CHURRUGA, S.A.**

Hotzian eta beruan  
jotako tornilluak

**Errekalde 21  
20590 SORALUZE**

T. 943 75 00 06  
T. 943 75 16 00  
F. 943 75 24 61

**H.NOS. BENITO  
ANAIAK**



Etxeko eta Sukaldeko Altzariak  
Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

T. y F. 943 75 20 43

Santa Ana 26, 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

**ARMENDIA  
JATETXEA**



Ezoz Auzoa, 11  
20590 Soraluze  
Tfnoa 943 75 10 02

Sukaldaritza tradizionala

**EDURTZA Kafetegia**  
Taberna eta jatetxe zerbitzua

Karta enkarguz,  
jaunartzeak  
eta bataioak

Santa Ana kalea  
20870 SORALUZE  
T. 943 75 13 83

# Mikel Hernandez

## “Fundaziñoko beka galdu ezineko aukeria izan da”

### Entrenamendu gogorra eginda zatoz.

Pajaria sartu jata eta... Normalian 3 orduko saiua egitten dot egunero, baina gaur luzatu egin jata eta lau ordu pasatu dittut. Deskantzu moduan 2 ordu suabe egitten dittut karrera eta gero eta lehenago.

### Kirol gogorra da?

Sakrifizio asko eskatzen dittu. Lagunak gutxiago ikusten dittut, ikasi be egin bihar da eta. Zapatuetan be etxian zintzo-zintzo.

### Pozak be emoten dittu baina.

Bai! Entrenatzen hasten zaranian eta karrera haundi baten lehenengo hogeixen barruan sartu... Behin negar egin neban, hirugarren sartuta.

### Beka bat emon dotsu Euskadi Txirrindularitza Fundazioak. Zertan datza?

Gipuzkoako sei edo zazpiti eskaini zotsen aurten eta nik bakarrik sinatu dot. Berek nerekin egitten dabean apostua da. Kontratu bat sinatu dogu eta horren arabera entrenatzen nabe eta gastuak (juan-etorrixak, medikuak...) ordaintzen dostez.

### Zer dala eta eskaini zotsuen?

Jubeniletan aurrian ibili nintzan, nahiko orekatuta, nahiz eta punta-puntan ez ibili. Lan egitten dotela ikusiko zebe. Galdu ezineko aukeria da.

### Profesioaletara heltzeko asmorik?

Bai, hori da nere helburua. Zegaittik ez probatu? ☺



## EMAITZAK

### PILOTA

Debarroa Txapelketa	
Calles – Arrieta	22
Elgoibartarrak	11
Bergararrak	22
Calles – Arrieta	16

### FUTBOLA

Orioko 2 – Sora 1	(Erreg.)
Zestoa 3 – Sora 1	(Jub.)
Sora 2 – Zestoa 0	(Kad.)
Sora 1 – Oiartzun 1	(Erreg.)
Sora 2 – Eibartarrak 1	(Jub.)
Mutriku 6 – Sora 0	(Kad.)

## AGENDA

### FUTBOLA

Zapatua 26, 19:00etan	
Elgoibarren	
Elgoibar – Sora	(Erreg.)
Zapatua 26, 15:30ean	
Bergaran	
Bergara – Sora	(Jub.)
Zapatua 26, 11:00etan	
Ezozin	
Sora – Bergara	(Kad.)

**ARRANO**  
tabernia

etorri eta gozatu  
giro euskalduna eta sanua

etxera

**Lakuesta**  
Optika

Ikusmen arazozen frogak  
eta argibideak  
Parafarmaziako produktuak

Santa Ana, 22 C. behea  
20590 Soraluze  
T. 943 75 30 59

GAZTELUPE  
taberna

tel: 943 75 20 81

**Ion Murgizu Pinturak**  
MARGOKETA OROKORREAN

Empapelatuak  
Estukoak  
Fatxadak  
Eskilarak eta patioak  
Pintura industrialak

T. 943 75 1324 M. 652 777 030  
Ezoziko etorbidea 24, 2 Behea





# ARGAZKI ZAHARRA



Iturria: M. Narbaiza

## JAUNARTZIA OSPATZEN

**1941** urtian etaratako argazkixa da. Jaunartzia egin daben neska gaztian inguruan, familia haundi bat ageri da, elegante jantzitta.

**Goiko ilaran, ezkerretik eskumara:** Teresa Artolazabal, Fausto Aristi, Justino Artolazabal, Miguel Angel Artolazabal, Angela Arluziaga, Antonio Artolazabal, Margarita Ibarondo, Mercedes Ariznabarreta eta Simon Artolazabal.

**Erdian, ezkerretik eskumara:** Amaia Artolazabal, Petra Leganigartu eta Gloria Aristi.

**Beheko ilaran, ezkerretik eskumara:** Ramon Artolazabal, Jesus Artolazabal, Jaime Aristi eta Mari Paz Artolazabal. 🌀